

Udalak 5 langabetu kontratatuko ditu 2024ko Tokiko Enplegu Ekintzen programaren barruan

Andoainen, 24-10-07.- Udalak 5 langabetu kontratatuko ditu 2024ko Tokiko Enplegu Ekintzen programaren barruan.

Lanpostu hauek beteko dira:

- 3 langile balioaniztun (peoiak) zerbitzu-brigadarako
- Iturgintzako 1. mailako ofizial bat
- Administrari 1

Kontratazio horiek Lanbideren tokiko enplegu-ekintzen programaren barruan sartzen dira, Beterri Buruntzako Mankomunitatearekin lankidetzan. 5 hilabeteko kontratuak izango dira, lanaldi osokoak, eta emakumeen presentzia lehenetsiko da. Izena Lanbideren bidez emango da, dagozkion lan-
eskaintzak martxan jartzen direnean.

Aurreikusten da enplegu-eskaintzak data hauetan argitaratuko direla Lanbiden:

- Zerbitzuetako brigadarako langile balioaniztunak: izena emateko epea urriaren 7tik 17ra egongo da zabalik.
- Iturgintzako 1. mailako ofiziala. Izena emateko epea urriaren 17tik 29ra egongo da zabalik
- Administraria. Izena emateko epea urriaren 14tik 25era izango da.

Lanpostu horiek hautatzeko prozesuan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute www.lanbide.eus webguneko enpleguaren atalean edo Lanbideren bulegoetara jo. Lanbideren Tokiko Enplegu Ekintzak programa diruz lagundutako enplegu-plana da, langabetuentzat eta Andoainen edo Beterri Buruntza eskualdeko udalerriren batean erroldatuta daudenentzat.

Langile balioaniztunak: prestakuntza lanean hasi aurretik Lasarte-Orian

Hautatutako hiru langileek Andoaingo Udal Brigadan lan egin ahal izango dute bost hilabetez, lanaldi osoan. Horretarako, ordea, lehenik eta behin, prestakuntza teorikoa eta praktikoa jasoko dute Lasarte-Orian, Gipuzkoako Eraikuntzako Lanbide Heziketako Eskolaren (EAGI) eskutik. Prestakuntza hori osatu eta gainditu ondoren, udal-brigadan sartuko dira. 150 orduko prestakuntza teoriko-praktikoa jasoko dute. Prestakuntza hori azaroaren 4an hasiko da eta abenduaren 13ra arte iraungo du. Honako eduki hauek landuko dira: bideak, arekak eta bazterbideak mantentzea (42 ordu); saneamendu-sareak mantentzea (36 ordu); oinezkoentzako ibilbideak eta hiri-espazioak mantentzea (36 ordu); eta hiri-altzariak mantentzea (36 ordu). Prestakuntza-saioak goizeko ordutegian izango dira, 5 ordu eta laurdeneko iraupenarekin (orientagarria).

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan 943 30 42 21 telefonoan edo efteknikaria@andoain.eus enplegua@andoain.eus helbide elektronikoan.